

## EUSKAL SISTEMA POLITIKOA

Nafarroako lurralde okupatueterik (2009.12.13)

### Sistema


Sistema bat gizakiak bere ingurua ulertu, ikasi eta dominatzeko erabiltzen duen tresna da. Onarturiko limite batzuen barruan, elkar dependiente diren variable multzoak osatzen du sistema bat. Sistema ezin da variable banakoei begiratzuz aztertu hauen arteko erlazioa aztertuz baizik. Hitzak adibidez letra ezberdinetaz osaturik daude, letra hauek bakarka aztertuz ez dugu hitza ulertuko, letrek elkarrekin osaturiko erlazioak ematen digu hitzaren ulermena. Sistemaren ulermenari pentsamendu sistemikoa deritzo.

### Sistema politikoak

Sistema politikoak estatuak osatzen dituzte gaur egun, lurralde jakin batean zapaltzaile eta zapalduz osaturiko indar erlazio fisikoak. Agintari eta zapalduen arteko erlazio hauek sistemen eredu politikoa determinatzen dute.

Estatu demokratikoetan agintariak herriaren mehatxu fisikoa kontutan hartu beharrea aurkitzen diren bitartean, estatu totalitarioetan biolentzia politikoa gobernuaren nahia asetzeko erabilia da eta indar honek ez du inolako erresistentziarik aurkitzen herriarengandik, honen tokia gobernuak hartu du.


### Sistema demokratikoa (Euskal Herria)



### Sistema totalitarioa (Espainia - frankismo garaian)



## Sistema totalitario modernoa (Espainia eta Frantzia - gaur)



Herriek beraien nahi propioa praktikatzean erreflejatzen dute beraien existentzia. Herria defini ezina da, berauekin topo egiteak soilik baieztatzen du hauen bizia (Irakurri Pueblo y poder, Joseba Ariznabarreta 2007). Gobernuek ere interes propioak dituzten elean gobernu ororen nahi herria suntsitzea da.

Zapalduen onezpena behar du sistema politiko orok, izan demokratiko zein totalitario, denboran zehar iraun nahi badu, zapalduen onezpenik gabe ez bait dago denboran iraungo duen zapaltzailerik.

Herritarrengandik zapaltzaileak behar duen onezpen honek botere ideologikoaren garrantzia azaleratzen du, ideologia bait da gizakion ekintzen gailua. Horrela uler daitezke gobernu ezberdinen engainu eta proklama demokratikoak. Gaur faxismoa itxura demokratikoz bakarrik inposa daiteke. Era berean herriek ere ezinbestekoa duten arma da ideologia propioa, beraien interesen defentsan.

Estatu totalitarioak demokrata bailiran agertzeak ez du inundi inora sistema demokratikotzat baieztatzen, sistema demokratikoa zapaltzaile eta zapalduen arteko erlazio fisiko bortitzak determinatzen bait du.

Espainiar faxismoak jakin izan du mantu demokratikoz jansten, horretarako derrigorrezko bidelagun zuen Euskal lidergoa osatu zuelarik. kolaborazionismo parlamentarioa batetik eta borroka indibiduala bestetik, biak Espainiaren etsai bailira aurkeztuz, Euskal Herriaren ordezkari bilakatu zituen faxismo espainiarrak berak.

### **Euskal sistema politikoa**

Herri sentimenduek piztuko dute borroka, arrazoiak ekarriko du garaipena.